

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure baliabideak beste zenbait enpresetakoak bezala hainbat azpitaldetan banatzen dira, eta horiek hauek dira:

- **BALIABIDE FISIKOAK:** Enpresak bere jarduerak egiteko beharrezkoak dituen elementuak dira, hala nola, instalazioak, ekipo ondasunak, makinak edo ordenagailuak ...

Gure enpresa bide egokitik bideratzeko faktore hauek ondo zehaztea beharrezkoa da eta gure enpresan zein paper jokatuko duten zehaztea ere.

- o **INSTALAZIOAK:** gure kasuan industria eremu batzuetan edukiko ditugu gure produkzioa aurrera eraman ahal izateko.

Gure instalazioak Bilbon finkatuko ditugu zehazki Bilboko industria eremuan eta bertan aurretik gurea zen pabeioi baten ekoitziko dugu gure produktua.



- o **BULEGOAK:** guk bulegoak enpresako nagusiak elkartzeko erabiliko ditugu. Bertan, gure produktuaren inguruko zalantzak, berrikuntzak... argituko ditugu eta bertatik gainerako esparruetara zabalduko da guk bertan erabakitakoa.

Hasiera batean, hiru denda izan behar ditugunez hiru hiriburu nagusietan (Bilbo, Gasteiz eta Donostia) bulego bat izango dugu bakoitzean, hau da, salmenta puntuetan.

- o **MAKINAK:** hauek gure industria eremuetan egongo dira eta gure produktua sortzeko erabiliko ditugu. Erabiliko dugun makineria gure produktua ekoitzi ahal izateko egokiena izango da, hau da, metal hori lantzen duen makina, forma ematen diotena "pizzatoreari".
- o **SALMENTAKO PUNTUA:** aurretik aipatutako moduan, guk gure produktua saltzeko webguneaz gain, denda fisikoak ere izango ditugu eta hauek izango dira gure salmenta puntuak. Bertan produktua erosteko, eta beste hainbat gauzetarako aukera izango dute gure bezeroak, adibidez, euren zalantzak argitzeko.
- o **SISTEMA INFORMATIKOAK:** gure enpresak punta-puntako teknologiaz baliatzen dira. Gure produktua berez teknologia aurreratuko produktu bat da, bere baitan dituen ezaugarriengatik, erabiltzeko moduagatik... Beraz, gure sistema informatiko guztiak ere punta-puntakoak dira.

- **BALIABIDE INTELEKTUALAK ETA GIZA-BALIABIDEAK:** Giza baliabidea elementu bereizgarria da enpresan. Giza baliabideak enpresan lanerako dituzten indarrak dira, hau da pertsonak eta bere prestakuntzak. Giza baliabideen barnean hainbat funtzio dira garrantzitsuak:
 - o *Langileen antolakuntza:* enpresan lan egiten duten langileen antolakuntza eta deskripzioa.
 - o *Laneko giroa:* beharrezkoa da langileak erakundean zer giro duen jakitea, zuzentzeko neurriak hartzeko.
 - o *Langileen administrazioa:* jarduera egoki baterako egin behar diren prozesu guztiez arduratzen da.
 - o *Lan-harremanak:* enpresaren eta langilearen arteko komunikazioa sustatzea da.
 - o *Laneko arriskuen prebentzioa:* lan egiteko baldintzak eta lanpostu horrekin lotuta dauden arriskuak aztertu behar dira.

Gure enpresarko bazkideen abantailak eta desabantailak aztertu ondoren taldea banatu dugu bakoitzaren ezagutzen arabera:

Irati: enpresa andmistratzeaz arduratzen da, finantza-saila, marketin-saila, plangintza-saila...bere esku daude.

Josune: bezeroekiko harremanaz arduratzen da, hauek ahalik eta gusturen egon ditzaten eskaintzen diegunarekin, eta epe luzerako harreman bat bermatu ahal izateko. Beraz, webguneaz, telefono deiez eta bezeroen bisitaz arduratuko da.

Naia eta Naiara: diseinuaz, markaz... arduratuko dira. Beraiek sortuko dute webgunea.

- **BALIABIDE-FINANTZIEROAK:** enpresako bazkideok aportazioa egin genuen gure enpresa sortzeko eta aurrera eramateko eta zenbait aurrezki-kutxa eta bankurekin ere harremanetan jarri ginen maileguak eskatzeko. Gure irabaziak bankuko kontu korrante batean sartzen ditugu.
Gure irabaziak berriz, saldutako produktuetatik lortuko ditugu nahiz eta hasiera batean gu enpresa moduan merkatuan sartu ahal izateko aurretik esandako moduan hainbat mailegu eta kapital aportazio egin behar izan genituen. Lehendabiziko urtean eta hilabeteetan sortzen genituen gastuak gure irabaziak baino handiagoak izaten ziren, beraz oraindik diru gehiago jarri behar izan genuen. Baina azkenean, gure produktuak saltzetik lortzen hasi ginena gastuen parean jartzen hasi zen eta azkenean gure ekoizpen-prozesuko gastuak gure diru-sarrerak baino txikiagoak izatea lortu dugu.

